

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA****ONDARE ZERBITZUA****Lizitazio publikoa alokatzeko, lehiaketa bidez, Vitoria-Gasteizko higiezin bat egoitza-harrerako baliabide baterako, 14 eta 18 urte bitarteko gazteak emantzipaziorako prestatzeko**

Foru Gobernu Kontseiluaren 246/2023 Akordioaren bidez, maiatzaren 9koa, lehiaketa bidezko lizitazio publikorako deialdia onartu da, akordio horretan, halaber, lehiaketa arautuko duten baldintzen pleguak onartu dira, eta horien funtsezko edukia honako hau da:

1. Deialdiaren xedea: Vitoria-Gasteizko higiezin baten alokairua. Egoitza-harrerarako erabiliko da, 14 eta 18 urte bitarteko gazteak emantzipaziorako prestatzeko.
2. Lizitazio mota: hilean 2.200,00 euro, BEZa eta komunitate-gastuak barne
3. Kontratuaren iraupena: hamar urte; urtez urte luzatu ahal izango da.
4. Bermea: lizitazioan parte hartzeko, 1.000,00 euroko behin-behineko fidantza eratu beharko da.
5. Baldintzen plegua: interesdunek eskuragarri dute honako helbide hauetan:
  - Arabako Foru Aldundiko Ogasunaren Erregistroa eta Informazioa (Samaniego kalea 14, beheko solairua, Vitoria-Gasteiz).
  - Ondare Zerbitzua (Samaniego kalea 14-4. solairua, Vitoria-Gasteiz).
  - Arabako Foru Aldundiaren webgunea: [www.araba.eus](http://www.araba.eus).
6. Eskaintzak aurkezteko lekua: Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorra (Probintzia Plaza 5 - Behea, Vitoria-Gasteiz). Proposamenak postaz ere bidali ahal izango dira, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 80. artikuluan ezarritakoaren arabera.
7. Eskaintzak aurkezteko epea: hogeita hamar egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, epea amaitzen den eguneko 14:30ak arte, salbu eta jaieguna bada, orduan hurrengo egun baliiodunera arte luzatuko baita.

Vitoria-Gasteiz 2023ko maiatzaren 10a

*Ondare Zerbitzuaren burua*  
**LUIS ALBERTO VALDOR FERNÁNDEZ**